

## Mimetismoda

**G**ustuko jantzi bat aukeratzeko burujabe sentiarazten zaituela aitortzen duzu, ironia apur batekin aitortu ere, Angel. Eta hala da. Nork ez du oroitzen nerabezaroko askatasun sentimendu hordigarri hura, familiako bazkari batera lehen aldiz nahi zenuen bezala jantzita azaldu zinen hura, osaba-izebak, aitona-amonak, lehengusu-lehengusinak, den-denak ahoa bete hortz uzteko asmoz. Ileak horituta, ala bekainak piercing- ez josita, ala –nire nerabezaroaren habia izan zen laurogeiko hamarkadan bilatuz adibideak– bakeroak zulatuta, txamarra txapa errebindikatiboz estalita eta walk-manaren kasko-entzungailuak gorputzaren luzapen organiko bihurturik...

Urte batzuk igaro dira, haatik, eta ez alferrik. Orain nerabezaroa atzean uztear zaude eta ohartzen zara zure gela-bunkerreko paretak ikustea galarazten duten afixak eta mutazio aro horretan zehar maskor gisa erabili duzun parafernalia guztia beldurgarri arrotza egiten hasi zaizula. Ez zarela egiazki zu. Aske sentiarazi zintuena orain alienazio baten ikur bihurtu dela. Ez duzula moda desberdintzeko erabili, baizik eta berdintzeko. Familatik askatzea ez dela prezio bat ordaindu gabe egin. Talde baten menpe egon zarela, taldearen joerak, gustuak, ideiak zure egin dituzula –eta horrek lotsatzen zaitu gehien– bestela onartuko ez zintuztela beldur baitzinen. Bakardadeak beldurtzen zintuelako. Bakardadeak beldurtzen zaituelako.

Baina orain, helduaroan sartu berritan, bakardadearen beldur direla beren buruari aitortzera iritsi diren beste jende batzuk ere ezagutu dituzu eta... ez zara hain bakarrik sentitzen. Orain moda ez duzu hain modu dramatikoan erabiltzen. Eremu sexualean –Houellebecquek esango lukeen bezala– ala lan-merkatuan



Ur Apalategi Idiriu

Basterretxea

Erro

ahalik eta itxura erakargarriena emateko darabilzu moda, instrumentalizatuz, estrategiak antolatuz. Eta batez ere, egoeren arabera janzkera aldatuz, zeren ongi baitakizu, orain, gehienetan kamaleoia- ren antzera ibili behar dela munduan, euri tanten artetik busti gabe joan nahi baduzu. Nahiz egia den, tarteka eta zirkunstantzia berezi batzue-

tan, kontraste bortitza egitea probetxugarria izan daitekeela. Esaterako, hiru pertsonen prentsako zutabe-errelebo batean parte hartzen dutenean.

Aldatu dena, beraz, zera da, mimetismoaren mekanismoaren kontzientzia osoa duzula. Ez duzula askatasunaren edo errebeldiaren ilusioan sinesten. Baina kontuz, desenkantua- ren eta zinismoaren ilusio simetrikokoaren mehatxuaz ere jabetu zara. Zinismoaren moztorra ere mimetismoz jantzen baita.

Orduan datozkizu gogora irudi zenbait. Mimetismoaren fenomenoaren zeinen sakona den frogatzen duten irudiak. Ohartu baitzara ohartu, urte luzeak elkarrekin bizi ondoren bikotekideek elkarren antza hartzen dutela, eta ez bakarrik janzkeran, baizik eta hazpegie- tan ere. Eta, gisa berean, behin baino gehi- gotan ikusi dituzu paseatzen jabearen antza duten txakurrak (ala txakurraren antza duten jabeak –nola trenka ?–).

Kontua ez da beraz moda jarraitzea ala ez jarraitzea. Kontua ez da aske edo jarraitzaile izatea. Animalia txit sozialak gara, joera mimetikoa poroetatik darigu (adizki hau ere *Euskal aditz batuan* ziurtatua, alajaina). Afera

ez da jabe ala txakur izan gura dugun, ezen beti izango baikara bai txakur bai jabe –proportzio aldakorrean, hori bai– baizik eta noren txakur edo noren jabe. Ez dakit, Jose Inazio, nire ttakun honen kolorea hartuko duen zureak, ala, aurrekoan bezala, kontraste bortitza aukeratuko duzun oraingoan ere. ■



Afera ez da jabe ala txakur izan gura dugun, ezen

beti izango baikara bai txakur bai jabe

–proportzio aldakorrean, hori bai–

baizik eta noren txakur

edo noren jabe

